

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudio Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko abuztuaren 19an hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onartu zen irabazi asmorik gabeko elkarteetarako diru-laguntzak, udalerrian bertan bideratuko diren edo udalerrirako interesa duten gizarte-jarduerak edota gizarteratzea sustatzeko jarduerak egin ditzaten

BDNS(Identifikatzailea.):318573

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, alegia, Diru-laguntzen Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehenengoa. Onuradunak

Laudio udalerrian informazio-, prebentzio-, arreta eta gizarteratze-lanak egiten dituzten elkarteak eta Laudio udalerriko zaharrentzako zentro soziokulturalak.

Bigarrena. Xedea

Diru-laguntzak ematea eduki soziala eta laguntzazkoa duten programak edo egoera ahulean dauden pertsonak gizarteratzeak bideratzen dituzten elkarteei eta Laudio udalerriko zaharren zentro soziokulturalari.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Laudio Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2016ko abuztuaren 19an. Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Hau da deialdiaren diru zuzkidura:

29.800,00 euro irabazi asmorik gabeko elkarteek Laudion informazioaren, prebentzioaren, arretaren eta gizarteratzearen arloetan bideratzen dituzten jarduerak diruz laguntzeko.

18.170,00 euro Laudioko zaharrentzako zentro soziokulturaletako jarduera-programak diruz laguntzeko.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Hogeita hamar egun natural, ALHAOn iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Laudio, 2016ko abuztuaren 19a

Alkatea

JON INAKI URKIXO ORUETA